

Aretxabaleta,
1992ko azaroak 5

Aretxagazeta



Gaztetxetxoak
hiru urte bete ditu

• Atxabaltarrak
Croaziara.

• Atxabaltartua:
Mari Carmen
Gutierrez.

• Bustingintzan
lanean.



Ordu diferenteetan jaten dira bokatak, baina ni bazkaria eta afaria bitartean jaten direnaz arituko

" Bokatak "

naiz, eskolatik etxeratzerakoan amak prestatzen zizkigunaz hain zuzen ere.

Mutikoak ginela, edozein lekutan jaten genuen "bokailua"; gehienetan, eta eguraldiaren baime naz, jolasten genuen bitartean. Hortaz, ez zen harritzekoa neska-mutikoak kalean ikustea bokata jaten. Zenbat partidu jolastu nituen nik muturrak "nocilla"-z beteta!. Orduan denbora geneukan gure okerkeriak egiteko, arratsalde partean beste zereginik ez geneukalako.

Gauregun oso arraroa da neska-mutiko bat ka-

lean bokata jaten, edota jaten baldin badute non-baiterako bidean egiten dute, izan ere gaurko neska-mutikoek arratsaldeak era guztietako gauzak egiteko aprobetxatzen dituzte: solfeoa, dantza, hizkuntzak, psikomotrizitatezko klaseak, entrenamenduak, katekexia... eta ez daukate guk geure denboretan eduki genuen besteko aisialdirik. Gaur inoiz baino gehiago seme-alaba azkarrak hezi nahi ditugu eta horretarako mila ekintza estraeskolaretara apuntatzen ditugu, sarritan konturatu barik helduen gizarte estresantearen

eredua ederto erakusten ari garela.

Horrenbeste ikasita ez da arraroa gaurko 14 urtetako neska-mutiko batek euskera eta erderā menperatzea, frantsesa edo inglesa neurrian jakitea, instrumentu bat jotzea, kirol batean aditua izan eta horretaz gain ordenagailu eta bideojokoak primeran erabiltzea.

Datorren belaunaldiak gizartearen kultura maila igoaraziko du, duda barik, baina zenbat sakrifizioen truke?

Bokatarena adibide bat besterik ez da.

Gaur egun oso arraroa da neska-mutikoak kalean ikustea bokata jaten.

Jabier Marcos
Aretxagazetako
erredakzio
kontseilukoa

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Goretti Ayastuy, **Argazkiak:** Josu Lazkano **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabertia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.


Zer daukazu esateko zinearen gainean?



Amaia Zabala
(ikaslea)

Ni ez naiz askotan egon, baina lehen egoten nintzenean askotan serio lan egin gura zenuen eta ezin zen, zarata asko zegoelako.

Liburuak, batzuk zahartuta eta datu asko faltan topatzen nituen. Orain ez dut liburutegi hori erabiltzen.



Fidel Iturbe
(langila)

Ni ez naiz sekula egon, ez dakit nola dagoen ere, badakit non dagoen, baina ez naiz inoiz izan.

Beti ere semea joaten da eskolako lanen bat egitera eta testu liburuetatik datuak jasotzera, baina ni ez naiz sekula egon.



Eli Perez
(ikaslea)

Nahiko gaizki dago, jendea bertara barre egitera eta jolastera joaten da. Ez dago formalidaderik eta fundamenturik. Bestela ondo dago, baina kasu horreitan hobetu egin beharko litzateke.



Iker Blazquez
(ikaslea)

Ondo dagoela uste dut, baina behar bada umeak gaizki portatzen dira. Hango zaintzailea gehiago errespetatu beharko litzateke.

Udalak langile bi behar ditu

Aretxabaletako Udalak, euskararen kaleko erabilpenaren neurketa egiteko pertsona bi behar ditu. Betebeharreko baldintzak:

- Aretxabaletakoa nahiz bertan bizi dena izatea.
- Euskalduna izatea.
- Soziologia nahiz soziolinguistikan aditua izatea. (ikasketak, ikastaroak, masterra..... baloratuko dira.)
- 18 urtetik gorakoa izatea.

Eskaerak aurkezteko epea: azaroaren 5etik 15era, Udaletxeko Bulegoetan, Curriculuna aurkeztu beharko da.



Arkarazoko jaiak

Aurten ere izango ditugu Arkarazoko jaiak, nahiz eta hasiera batean ez zirela ospatuko zabaldu.

Jaiei hasiera azaroaren 1ean eman zitzaizen mus txapelketa eta pelota partiduekin eta gauza berberak izango dira datorren azaroaren 8an ere. Baina jai ofizialak azaroak 14 eta 15ean izango dira.

Zapatuan eguadiako ordu batetan Meza nagusia izango da eta gero lunch-a bertsolari eta Anaiak taldeak alaituta. Egun horretan bolo txapelketa eta haurren jolasak era izango dira egu-

nean zehar.

Domekan berriz eguerdiko ordu batetan Meza Nagusia egongo da eta gero mus eta Briska txapelketak eta baita pelota partiduak ere. Guzti horren ondoren bermut dantza izango da eta gero Suzko-ziriak ikusteko aukera ere izango dugu.

Egitaraua ikusi eta gero garbi dago aurten, aurreko urteekin konparatuta, gauza guxtiago daudela egitarau barruan. Baina hala eta guztiz ere, antolatzaileek jaietan aurreko urteetan beste jende etortzea espero dute.



Kontenedore barriak

Ikusi ahal izan duzuen moduan, kriztalezko ontziak botatzeko kontenedoreak dauden tokietan orain beste kontenedore urdin batzuk ipini dituzte. Hauek kartoiak eta paperak botatzeko dira, gero paper berziklatua egiteko erabiliko direnak.

Beraz hemendik aurrera paperak eta kar-

toiak zakar ontzira bota beharrean bidoi horrietara bota ezker balio bat atarako zaizkie.

Gauza bera pilekin. Kontenedore alde batean ontzi txiki bat aurkituko duzue erabilitako pilak botatzeko. Betiesan izan da pila erabiliak ez direla zakar ontzira bota behar, orain badaukagu nora bota.

Eskailera barriak

Azken aste hauetan plaza ingurua hesi laruez inguratuta daukagu eta eskailera batzuk erabiltzea ezinezkoa izan zaigu. Ikusiko zenuten eskumako eskailera berriak egin dituztela eta orain

ezkerrekoiei tokatzen zaie. Beraz nahiz eta orain beste eskailerataraino joan behar jaisteko edo igoteko, kontuan izan gero eskailera barriak eta egoera hobean izango ditugula.

ZAPE

ARTEGINTZA

Lezama merkatal zentrua, 14



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA!

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABALETA

AROTEGI
GENERALA



PORTASOL

ARETXABALETA
Tnoa: 79 34 84



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**



Sexu arteko berdintasuna

Emakunde, emakumearen Euskal Erakundeak Xabide S.COOP-ren bidez, sexuen arteko aukera berdintasunaz eta hezkuntzavidetaz hitzaldiak emango ditu. Euskal Autonomi Elkarteke Erdi mailako irakaskuntzako ikastetxeetan aurrera eramango den sentsibilizazioaz jardungo dute.

Esperientzia piloto horrekin, ikasleek, taldean eta bi begiralek gidatuta lan eginez, berdintasunari buruz eta desberdintasunari buruz eztabaida dezatela gura da.

Sexu arteko aukera berdintasuna eta heziketa gaien inguruko sentzibilizaziorako esperientzia pilotoa **Atxabaltan** egun hauetan izango da:

Azaroaren 9an goizeko 8etatik 12etara Atxabaltako eskola profesionalan. Azaroaren 10ean ere 8etatik 12etara toki berean izango ditugu.

Esperientzia horren helburua sexuen arteko berdintasuna bideratzea da

• Zure familiaren arazoa alkohola dela uste baduzu, norbait edaten duelako, badaude gazteentzako taldeak. Talde hauek **ALATEEN** izenekoak dira. Bertan zure esperientziak kontatu ditzakezu, arazo bera dutenekin. Informazio gehiagorako telefono honetara deitu **dezakezu: 79 63 73** (goizeko 9etatik 11etara).

• Asteburu honetan ekintza ugari egin ziren **Gaztetxeak antolatuta, 3. urtemuga ospatzeko.** Bertan, besteak beste, antzerkia, bazkaria eta abar, izan genituen.

Atxabaltar bi Croaziara

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari esker Euskal Herriko gazteek Croaziara joateko aukera izan dezakete. Ekintza horren helburua, bertan jasaten dabilzan egoera kontuan hartuz, errefuxiatuen kanpamentuetan dauden umeei laguntza eskaintzea da. Gazte horien eginbeharra batez ere umeak joku eta antzerkiekin entretenitzea da.

Ekintza horietan Atxabaltar bik ere hartuko dute parte: Maria Agirrek eta Osane Ayastuyk. Maria dagoeneko bertan izango da, Zagreb-en hain zuzen ere. Zagreb-en 5 bat egun

eginiko ditu eta gero irla batean dagoen errefuxiatuen kanpamentu batera joango da. Irla horretako kanpamentua nahiko barria denez lan ugari izango dute guzti hura antolatzen, bertan 2000 pertsona daude eta.

Geroabenduaren 13an Osane joango da bertara. Osane ez daki oraindik zein tokitara joango den ziur, baina Gabonak bertan pasatuko ditu hango umeei bere laguntza eskainiz. Bueltan datozenean izango dute bai zer kontatu eta izan duten esperientziak jakin araziko dizkigutena.

AZKEN BAZTER
KAFE - TEATRO - CLUB



Herriko plaza

IMANOL ALTUBE

**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36
Tnoa: 79 10 60
ARETXABALETA



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte Kalea Z/G
Tnoa: 79 85 57



Kurtzebarri eskolakoak Aretxagazetan

Joan den astean Kurtzebarri Eskolako 8. mailakoneska-mutikoak izan genituen Aretxagazeta bisitatzen. Gazte hauek taldeka etorri ziren egun desberdinetan gure aldizkaria zela egiten den jakin guran. Eurak klasean orain kazetaritza aztertzen dabilta. Guk, geure aldetik ahal genuena azaldu genien eta gero eurek galdera pila bat egin zizkiguten. Erabiltzen dugun materiala

zehatz-mehatz aztertze-ko aukera izan zuten eta badirudi pozik urten zutela hemendik.

Euren asmoa klasean aldizkari bat egitea da eta ziur gaude oso aldizkari onak egingo direla. Ea ba ondo ateratzen zaizkizuen aldizkariok eta hurrengoan ere etorri gura izan ezkeroteak zabalik izango dituzue, bai zuek eta baita etorri gura duen beste edonork ere.



Domu Santu eguna

Joan den domekan, azaroaren 1go eguna zela eta, Domu Santu eguna izan zen. Egun horretan, ohitura den moduan, jendeak kanposantua bisitatzen du. Familian hildakoak omentzen dira edo eta hildako guztiak.

Egun horretan, Kanposantua loraz ondo apaindurik egoten da, bakoitzak bere familian hildakoei loreak eroatea da ohitura.

Aurreko domekan ez zuen eguraldiak asko lagundu, nahiko egun kaxkarra izan genuen. Hala ere, oso dotore zegoen Atxabaltako Kanposantua eta jende ugari bisitatu zuen.

Askok bertan familia artekorik ez izan arren, ez dute aspalditi datorren ohitura hautzen eta urtero bisitatzen dute kanposantua bertan dauden hildako guztiak gogoratuz.

Drogomenpekotasun prebentziorako astea

Azaroaren 16tik 22rako astea izango da hau. Ekintza desberdinak egingo dira ikastetxeetan drogaren arazoaren inguruan: marrazki lehiaketa, komiki lehiaketa, eta lema eta "slogan" lehiaketa. Jasotako lan guztiekin

erakusketa bat egingo da.

Gazteak alkoholaren aurrean lemapean mahai inguru bat ere izango da, hau goi zikloan. Honen barruan "slogan"-en eta kamiseten diseinua dago eta denentzat kalean antzerkia.

Atzeratuen aldeko ekitaldia

Azaroak 14ean Gaueko 10etan izango da Jaialdia Zaraqia zinemaren. Honako hau da egitaraua:

Eskoriatzako musika bandaren emanaldia, Angel Bañaresen zuzendaritzapean.

Marta Izagirre pianoan eta Olatz Amozarain Flautarekin.

Juan Luis Lekunberri pianoan eta Bego Leku-berri abesten.

Trikitixa Koldo Gaztañaga eta bere taldearekin.

Tronboi hirukotea: Unai Urretxo, Haritz Solupe eta Alberto Urretxo.

Arrasateko GOIKO-BALU abesbatzaren emanaldia,

Askotan ibili izan gara txikitan buztinarekin figurak egiten, baina ez dakigunazera da: jende asko bertatik bizi izan dela.

ANTONIO CORRES, adibidez, txikitatik ibili da buztina lantzen eta baita bere aita ere. Bere aitak hortik ateratzen zuen familia mantentzeko dirua. Nahiz eta orain berak afizio moduan hartu, bertatik ere bizi izan da.



Buztingintzan lanean

• **Noiztik daukazu afizio hau?**

• Txikitatik, etxean beti ikusi dut aita buztinaz lan egiten, buztinlaria zen eta. Ni ere beti ibili naiz buztinaz lanean, 10 urte neukanetik aitari laguntzen nion eta. Ni Marañoongoa (Nafarroa) naiz eta han jende asko zegoen horretara dedikatzen zena. Aitak astoa ontzietan betetzen zuen, gero saldu eta horrela ekartzen zuen dirua etxera.

• **Asko kostatu zitzaizun ikastea?**

• Nahiz eta etxean betidanik zelan egiten zen ikusi, tornoa ondo manejatzea asko kostatzen da. Buztina ondo moldeatzea kostatzen da gehien.

• **Gero betidanik jarraitu duzu zuk afizio honekin?**

• Bai, urte askoan Eskoriatzan egon nintzen han geneukan tornoa eta. Gero Atxabaltara ekarri genuen tornoa eta laba ipini zuten hemen lan egin nezan.

• **Zer da gatxena?**

• Buztina tornoan moldatzea da gatxena. Arte handia behar da horretarako eta urte lu-zetako esperientzia ere bai.

• **Hemen inguruan bada destaketan den norbait?**

• Ez inor ez, igaz ondo moldetaz mutil bat ibili zen hemen, baina gero ez zuen jarraitu.

• **Zenbat denbora dedikatzen diozu afi-**

zio honi?

• Libre daukadan guztietan dedikatzen diot denbora apur bat. Orain neguan eguraldi txarra egiten badu, hemen pasetan dut denbora gehiena. Lehen dirua irabazteko egiten nuen, baina orain hobya besterik ez da.

• **Zenbat denbora behar da pitxar bat egiteko?**

• Tornoan forma emateko 5 bat minutu, besterik ez. Gero laban sartu eta barnizatu eta laba zaintzeak denbora gehiago eroaten du. Laban figura bat baino gehiago sartzen dira txandako bakoitzean.

• **Zein da prozesua?**

• Zirkularrak direnak, denak tornoan egiten

dira. Lehenengo pitxarra egiten da tornoan forma emanez eta gero hurrengo egunean edo ipintzen zaio asa. Ondoren barnizatu egiten da eta gero laban sartu. Normalean laban sartu aurretik barnizatzen dira, baina hemen birritan sartzen ditugu laban barnizatu barik eta gero berriro barnizatuta. Bestalde esmaltea ere gertatu behar da, gero barnizatzeke, hau aparte egiten den lana da.

• **Etxean zer esaten dizute?**

• Oso gustora daude, Baina semeek ez dute jarraitzeko asmorik, askotan animatu ditut baina ez dute gura.

• **Afizio hau galtzeko arriskuan ikusten duzu?**

• Bai, tornoarena galduz doa. Lehen jende asko zegoen horretara dedikatzen zena, baina orain dena modernizatu da eta ez dago inor horretan lanean.

• **Zein da sekreto inportanteena?**

• Barnizak gertatzeak takto handia eskatzen du, oxidoen bidez egiten da eta segun eta ze oxidore erabili kolore desberdinak ataraten dira.

• **Orain zer egiten duzu gehien?**

• Tarterak egiten ari naiz. Hauek eskuz egiten dira eta askoz zailagoa da horrelakoak egitea eta denbora gehiago behar dute.

Aspaldidanik dugu Atxabaltako Gaztetxea martxan. Berari buruz zerbait jakin guran bertako lehendakeria den Deiane Zubillaga eta lehendakari ordea den Olatz Igleasiasekin elkarrizketa bat izan dugu.

Eurek euren eritziak eta asmoak azaldu dizkigute eta jendeari Gaztetxea ez dela askok uste duten influentzia txarreko leku hori azaldu gura diote.



Gazteen etxea, Gaztetxea

• **Noiz sortu zen Gaztetxea egiteko asmoa?**

• Gutxi gorabehera 7 urte dela, baina kuartela libre geratu zenean ideia aurrera eramatea pentsatu genuen eta orduan Udalarekin harremanetan hasi ginen.

• **Ze motatako harremanak izan dituzue Udalarekin?**

• Harremanetan hasi eta urtebete edo egon ginen zain, Udalak egin zezakeenari begira. Orain zerbait gura badugu ere beti Udalarengana jo behar izaten dugu. Baina ez dugu arazo larrik izan. Orain, ate bikoitza jarri gura dugu eta 5 hilabete inguru daroagu itxoinen.

• **Ze helbururekin sortu zen Gaztetxea?**

• Beti tabernetan sartuta egoten ginen eta ekintza desberdinak egiteko leku bat behar genuelako sortu zen. Bertan ikastaroak, jolasak eta abar egin gura genituelako eta helburuak betetzen direla uste dugu.

• **Zeintzu ekintza egoten dira?**

• Orain arte makrame ikastaroa, loragintza ikastaroa, narrugintza ikastaroa eta mimo ikastaroak izan ditugu. Orain saltsa eta merenge dantza ikastaroak antolatzeke asmo daukagu eta baita komikiarena ere.

Bestalde, kontzertuak

eta antzerkiak ere izaten dira.

• **Horretarako dirua nondik ataraten duzue?**

• Gehien bat, tabernan ataraten denarekin egiten dugu. batzuetan falta egiten bada Udalera jotzen dugu eta ematen badigute horrekin moldatzen gara.

• **Zenbat jende zaudete barruan sartuta?**

• Soziedade moduan jarrita dago eta sozioak gaude eta taldeka banatuta, garbiketak eta mantenimendua eramateko. Denera 80 bat izango gara baina gehien mugitze garenak erdia inguru. Horrez gain badago kanpoko jendea askotan parte hartzen duena.

Astero garbiketa talde baten eskuetan egoten da eta hilabete batean mantenimendua tokatzen zaio. Zerbait apurtzen bada edo, mantenimendukoak arduratzen dira. denera 8 talde daude.

• **Orain arduradunak neskak zarete, horrek aldaketarik suposatzen du?**

• Ondo konpontzen gara eta harreman guztiak nesken artean eramaten ditugu eta oso gustora gaude gu hirurok. Baina horrek ez dakar aldaketaririk.

• **Baduzue kanpoko jendearengandik laguntzarik?**

• Bai, adibidez, Eloorrioko edo Andoaingo gaztetxeokekin harremanak ditugu. Han zerbait falta badute edo kontzertu

"Askotan astakeria haundiak entzuten dira Gaztetxeari buruz".

bat emateko jendea gura badute guk bidaltzen diegu edo laguntza eskeintzen diegu.

• **Orain ez duzue lorategirik, ezta?**

• Ez, dena apurtu da, baina patioa nahiko txikia geratu arren, zati bat lorategia egiteko erabili gura dugu, obra guztiak bukatzen direnean. Baina momentuz ez daukagu ezer. Lorategia loragintza ikastarokoek zeramatzen, lehenengo ikastaroa egin zen eta han ibili zirenek mantentzen zuten lorategia.

• **Atxabaltan helduen aldetik ze jarrera ikusten duzue?**

• Eritzi desberdinak daude, batzuentzako Gaztetea delakoa ez dute ezer entzun gura, nahiz eta gauza onak entzun euren jarrera horrelakoa da. Beste batzuk euren pentsakera aldatu egin dutela ikusten da. Lehen Gaztetea "desmadre" hutsazela uste zuten eta orain eritzi hori aldatu egin dute. Baina oraindik asko daude euren iritziak aldatzen ez dituztenak eta astakeria haundiak entzuten dira Gaztetearen gainean.

Beraz guk pertsona horiek Gaztetea ikustera gonbidatzen ditugu eta esan ez dela horren toki txarra. Nahiko gatxa da Gaztete batera jende heldua etortea baina adibidez HIES-ari buruzko hitzaldiak izan zierenean jende heldu asko etorri zen.

• **Beste lekua skotan**



Gazteteak itxi egin dira, zergatik dela uste duzue?

• Beti gaztete bati gutxiago ematen zaio taberna normal bati baino. Hala ere, zaratak egoten direlako izan daiteke arrazoi bat. Askotan egia da egoten direla, baina beste askotan jendearen burugogorkeriagatik da eta Gaztetea izateagatik zaratak egongo direla uste da.

Zaratak edozein tabernatan egoten dira eta orduan inork ez du ezer esaten edo jende gutxiagok protestatuko du.

• **Izan da kexarik zarata dela eta?**

• Guregana ez da inor etorri kejaztera, denak udaletxera joaten dira. Baina ez dira egon asko, nahiz eta batzutan

kanpoan zurrumurruek entzun, guregana ez dira etortzen.

• **Ikusi duzue inoiz Gaztete hau ixteko arriskurik?**

• Ixteko arriskua ez, entzun izan da kanpoan jendeak ixteko gogoia daukela, baina esamesak besterik ez dira. Fijo ixteko arriskurik ez dugu sekula ikusi.

• **Zelakoa da zuen arteko giroa?**

• Toki gutzietan moduan ezadostasunak daude, denok ez gara eritzi berekoak.

• **Zela sortu zen Bosnia erropak erroteko ideia?**

• Idazkariari, Maiteri, hara eroan behar dutenek deitu zioten eta gu bitartekari egiten gabiltza. Orain arte erropa mordoia batu dugu eta oraindik portaletatik jasotzeko asmoa dugu.

• **Aurrerantzean zer egiteko asmoa duzue?**

• Momentuz lehen aitaturako ikastaroak eta baita antzerki aste bat ere. Gero masaia ikastaro bat egiteko asmoa ere sortu da. Kontzertuekin ere jarraituko dugu, gainera datorren 27rako kontzertu desberdina daukagu antolatuta: Tapia eta Leturiaren kontzertua. Kontzertua ez dira jendeak uste duen modukoak, beti zaratsua, denetik izan ditugu.

Gu edozein proposamen onartzeko prest gaude.

"Bosniarako erropa mordoia jaso dugu, lan horretan guk bitartekari egingo dugu".

Mari Carmen Gutierrez Bilbotik Atxabaltara

- **Non jaiio zinen?**
- Bilbon bertan jaiio nintzen.
- **Noiz etorri zinen Atxabaltara?**

• Ezkondu ginenean etorri ginen, 1970ko abenduan. Senarrarekin etorri nintzen, berak Fagor-en egiten zuen lan eta ezkondu ginenean hona etorri ginen bizitzera.

- **Zeintzuk izan ziren zure lehenengo lagunak hemen?**

• Atxabaltan askoez, jendearekin harremanak izatea nahiko gatxa egiten da eta. Nire edadeko jende askok gainera familiarekin urtetan du eta orduan nahiko gatxa egiten da lagunak egitea, nire ustez.

- **Ze impresio egin zizun Atxabaltak?**

• Oso herri polita, plaza ezik, oso zabala eta zementozkoa izatea ez zitzaidan larregi gustatu baina beste guztia bai. Aurretik herriak ikusteko Eskoriatzara joan ginen, baina hau askoz politagoa iruditu zitzaigun.

- **Ze desberdintasun ikusten duzu Bilborekin konparatuz?**

• Hemen bizitza la-



saitxoagoa da eta posibilitate haundiagoak daude mendira urteerak egiteko. Hemen Bilbon baino samurragoa da jendea ezagutzea. Egutero jende berberarekin egiten duzu topo.

- **Hemengo euskerak ze impresio egin zizun?**

• Ni euskaldun berria naiz eta bizkaiera hasi nintzen ikasten Bilbon. Samurra egin zitzaidan, Bilboko euskara eta he-

mengo ez dira hain diferenteak.

- **Herriminik bai?**

• Noizbehinka bai, baina joaten gara Bilbora. Oraindik han lagun asko ditut eta bertakoez ditugu harremanak guztiz galdu.

- **Ze alde dago lehenengo Atxabalta eta oraingoaren artean?**

• Asko handitu da, nik Lausitta eta Lora-mendi gehiena eraikitzen ikusi nuen. Asko haundi-

tu da eta zerbitzu aldetik asko hobetu dela uste dut.

- **Bilboren aldean ze desberdintasun dago?**

• Zerbitzu aldetik oso ondo dagoela uste dut, Kirol Etxea dago, mendiko urteerak egiten dira eta abar. Atxabaltan senti dezakedan hutsunea kultur mailan izan daiteke, hiri batean beti dago aukera gehiago.

- **Badago ohituren aldetik desberdintasunik?**

• Bai. Atxabaltan astegunetan ilunkaretan ia ez dago jenderik, Bilbon barriz jende asko aurkitu dezakezu.

- **Zein izan da gehien arritu zaituen ohitura?**

• Santa Ageda mutilen ohitura. Oso ohitura polita da, Bilbon abesbatzek urtetan dute kantuan, baina ez hemen moduan kintoak.

- **Zeure burua Atxabaltartzat daukazu?**

• Erdi eta erdi. Seme alabak Atxabaltarrak dira eta orduan bihotzak honantz tiratzen du.

- **Badaukazu anedotarik?**

• Santa Ageda mutilen lehenengo etxafle-roak susto haundia eman zigun. Orduan egoera berezian bizi ginen Frankismoa zela eta, tiroak zirela uste izan genuen. Goizeko 5tan etxaflero hura entzutea ez genuen espero.

Gure bailaran, eta batez ere Aretxabaleta aldean futbolaz aparte, beste kirol baten gorakada, geroz eta garbiago ikusten da.

Orain dela urte batzuk, futbola besterik ez zen ikusten. Baina Almen K.Eak eta Kurtzebarri eskolaren lana aipatu behar da, kirol horren alde egin duten lanarengatik.

Almen K.E eta Kurtzebarri eskolaren lana orain urte asko hasi zen. Lan honen berri euki guran, Almen K.Eko entrenatzaile batekin egon gara. "Hasiera batean, ekipo bat edo



U.D.Ako talde handiak, bere lehen garipena lortu zuen joan zen igandean, Euskalduna taldeari 2 eta 0 irabazita gero. Garaipena berandu heldu arren, ea hemendik aurrera garaipenaren bidean jarraitzen duten. Lehenengo errejionaleko taldeak ere binakako berdinketarekin bueltatu ziren, azkenengo minutuan sartutako gol bati esker.

Urtero moduan, aurten ere, Behobia- San Sebastian lasterketa egingo da. Almenetik K.Eak auttobus bat antolatuta bertara joateko, eta horretaz aparte kotxe partikular ugari joango dira.

Saskibaloia goruntza

bi atera arren, poliki-poliki gero eta talde gehiago joan ginen ataraten. Gogoratzen naiz hasieran neska talde bat, eta beste mutil talde bat bakarrik atera genituela."

Baina guzti hau orain 12-13 urtetako kontua da. Gaur egungo egoera, askoz desberdinagoa da. 7. mailatik, C.O.Urarteko taldeak daude.

"Guk haurrak eskolarteko kirola bukatzen dituztenean hartzen ditugu, hau da 7. mailan. Eskolarteko kirola bukatu bezain laster, hurrengo urterako taldeak egiten hasten gara, haurrak etortzen zaizkigun neurrian. Guk haur bat ere ez dugu uzten atzean, denak hartzen ditugu. Normalean hasieran eki-poak 15-18koak izaten

dira. Gainera askotan haur asko badago, bi talde egiten ditugu."

Garbi ikusten da, horrelako filosofia eukiz gero, talde pilo bat eukiko dituzuela. "Momentu honetan, maila bakoitzeko bi talde dauzkagu."

"Entrenatzaileekin arazo ugari izaten ditugu. Oso jende gutxi dago prest urte guztian zehar, haur talde bat eroateko. Normalean, Almen ikastolako ikasleak izaten dira entrenatzaileak. Jende hau ez da oso ondo prestatuta egoten, baina euren lana oso garrantzitsua eta eskertzekoa izaten da. Guk dakiguna azaltzen diegu eurei, baina hala eta guztiz ere, urtean zehar, jende honi erakusteko ikastaroak fal-

ta dira."

Haurrak, lehenengo mailara joaten direnean, federatu egiten dira. Honek diru kopuru bat suposatzen du gainera, baita bidaia luzeagoak, gurasoen laguntza gehiago...

"Bai, baina 14 urtera heltzen direnean, beti federatu egiten ditugu. Baina honen ondorioa bidaia luzeak dira. Normalean bidaia gehienak, Donostia aldera izaten dira, nahiz eta Arrasate aldean talde batzuk egon. Baina guzti horretan, gurasoak laguntza handia ematen digute, bidaian euren kotxeak ekarritz".

Guzti honek lan handia dauka, baina pena merezi duela uste dugu hainbeste haur mugitzeak.



60ko hamarkadan ateratako argazkia da. Atxabaltan ia gizona zeko danak hor daude bilduta, euren hartzai espiritualak buru zirela.


ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
- Asetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den erlojua?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Londres)



Aurreko lehiaketaren irabazlea RAUL RABAZO izan da. Zorionak!

Erantzuna:

- Izen-abizenak:
- Helbidea:
- Tfnoa:

BESTEAK BESTE



• **Bosniako haurrak:** Eskoriatza, Gatzaga eta Atxabaltako alkateak elkartu ziren eta denboraldi baterako haur Bosniarrak hona ekartzea pentsatu zuten. Haur hauek San Biator Harrera Etxean egongo dira eta gero famili tutoreak izango dituzte, garbiketa eta nolabaiteko laguntzak emateko.

• **Azken 3 hilabetetan jaiotako haurrak:**

Uztailean: Iban Garcia Murillo eta Leire Estevez del Palacio.

Abuztuan: Oiane Caverro Gonzalez, Elena Fernandez Perez, Asier Zubizarreta Beloki, Haritz Urcelay Arenaza, Nahia eta Ane Martin Miguel, Jon Ander Guerrero Santamaria, Enara Perez Valez, Hur Barandiaran Urkia eta Daniel Morales Galan.

Irailean: Ander Rajado Agilera eta Laida Manterola Oyarzabal.

• **Arkarazoko** kanposantuko horma jausi egin da azkeneko euriteen ondorioz.

• Urriaren 22an Jaio zen **Bixen**, Alfredo Meabe eta Mari Carmen Etxandiaren semetxoa.

POESIA

Bihotzez poztu

Udaberrian,
lore biziak usaintzean
zure gorputzeko azal fina senti dezaket
eta
zugana korri egiten det.

Uda dator eta,
gau argisuetan zerura begiratzean,
zure aurpegia ikusten dut
eta gezurrezko ametsetan galtzen naiz.

Udazkena heltzean,
Jadanik zure imajina galdu denean,
ohera sartzen naiz
eta
negar egiten dut. Negar.

Baina neguan,
lurreko zuritasuna nabari dezaket
eta
berriz, zugana hurbiltzen naiz.

Horregatik,
urtea igaro
eta nire alboan zaudela
ikusten dudanean,
BIHOTZEEZ POZTEN NAIZ.

PHILIP

KOMIKIA



7 ZAPATUA

- Donostiako abesbatzaren emanaldia.
- Gaueko 10tan Zاراia zineman: " **Pesadilla Final** filmea.

U.D.A - TOLOSALDEA K.E (1go erreginala).

- Arratsaldeko 4.30etan eta 7tan Zاراia zineman: " **Pesadilla Final** " filmea.

- Mus eta briska kanporaketa Arkarazo aozoon.

14 ZAPATUA

- Arkarazoko jaiak (ikus egitaraua).
- Gaueko 10etan atzeratuen aldeko jaialdia.

• Zاراia Mendi Taldearen irteera: **KRABELIN AITZ**.

• Futbol partidua: **U.D.A - C.D DANAK**

• Arratsaldeko 4.30etan eta 7retan Zاراia zineman: " **Mi Chica** " filmea.

8 DOMEKA


- Murrukixo Mendizale Elkartearen irteera: **IZPIZTE**.
- Futbol partidua:

13 EGUAKOTXA

• Gaueko 10.30etan Zاراia zineman: " **Mi Chica** " filmea.

15 DOMEKA

- Arkarazoko jaiak (ikus egitaraua).
- Murrukixo Mendizale Elkartearen irteera: **GORBEA**.



ARETXAZOKA

Etxebizitzak

- Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan.
Tnoa: 88 67 23
- Pisua osatzeko pertsona bat behar da Arrasaten, dei egin goizez 79 11 19 tnoa

Lana

- O.H.O ko klase partikularrak ematen dira.
Tnoa: 79 68 18
- Alemana hutsetik hasita ikasi gura nuke. Norbaiterakusteko prest balego, dei dezala ilunkaretan zenbaki honetara: 79 41 94

Salerosketak

- Matrimonio logela bateko altzariak salgai, egoera onean daude. Interesatuek deitu telefono honetara: 79 26 60
- Garaje bat salgai Lausita Kanean.
Tnoa: 79 99 86

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT

GARAGE
OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN

 MANTEKA
 ANAIK

BASABE
JATETXEA
 Menu eta afariak
 Industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 79 31 84

GARAGE
 " EDER "

Karrozeria
mekanikoa

IBARRA Z/A
 Tfnoa: 791666
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
 ALTZARIAK
 DISEINUA
 APAINKETA
 BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

 **EROSKI**
 Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
 DURANA ETA ARALAR KALEETAN
 Tfno: 79 16 05

ARLUTZ
taberna
 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

NERIAN
 Loradenda
 Otorora, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66

" HERRASTI "
 AKEITA ETXEA

 Aralar kalea, 7
 Tfnoa: 79 32 83

Lorenzo Gonzalez
 Pinturak
 Araba ibilbidea, 24
 Aretxabaleta
 Tnoa: 79 65 46


MASAILARIAK
MASAIK ZARAIA
 MASAIK eta
 OSTEOPATIA
 Loramendi, 13 - 1.A
 Tnoa: 79 71 55

I O S U
 URDAITEGIA
 MITARTE, 1 eta
 GORBEA, 8

EXPRESS
AKEITEGIA
 Santa Kurtz, 16
 Tnoa: 79 23 43

OILASKO - URDAITEGI - IZOZKIAK
IÑAKI
 Gipuzkoako plaza, 1 Tfnoa: 77 02 99
ARETXABALETA

IBARRA ESTANKOA
 TABAKO, IKAS MATERIALA ETA ZERGA
 IMPRIMAKIEN SALMENTA
 Bizkaia, 3
 Tfnoa: 79 23 77
ARETXABALETA



Gaurtik aurrera, aurrezki-zerga gutxiago ordaintzea eta errentagarritasun altua eskuratzea, den-denon esku-ra dago. Euskadiko Kutxaren Fiskal Aurrezki-Planarekin.



Lagun guztiek bere aurrezkiengatik etekinik handiena eskura dezaten bereziki dizeinatu. Erabilgarritasunari uko egin gabe. Zerga gutxiago ordaindiz. Eta uneko errentagarritasun garbia handienarekin. Inbertsio-fondoa delako -Caja Laboral Renta FIM-. Baina, libretan, dena argi, seguru eta erraz jarrita ikusteak daukan erosotasunaz. Informa zaitetz gure edozein sukurtsaletan. Euskadiko Kutxa. Oraingoa unerik egokiena.

**Euskadiko
Kutxa**

